

# ANTZERKIA ESKOLARA HELTZEN DA KANPAINA



## IKUSLE TXIKIAK PROGRAMA



▶ Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava  
▶



Teatro  
**PARAIISO**  
Antzerkia



## IMAGINE. IRUDIAK TRESNA HEZIGARRITZAT

### *Tailer esperimentalak irakasleekin*

---

Programa irakasleekin egingo den tailer praktikoarekin hasia proposatzen dugu, irudien eta Haur Hezkuntzan eskaintzen dituzten aukera hezigarri eta artistikoen inguruan.

Irudiz beteta dagoen munduan, zein da horien lekua heziketa-proiektuan? Irudiak mundua esploratzeko eta marrazteko tresnak dira? Zer-nolako aukera hezigarri eskaintzen dizkigu irudi-jolasak?


Tailer honetan, hiru jarduera-ildo jarraituko ditugu.



Irudiak ipuinak kontatzeko inspiraziotzat eta baliabidetzat.



Irudiak esploratu eta sortu gelan jolasa sustatzeko modutzat.



Irudiak Artearekin topo egiteko leihotzat.

Azkenik, ikasgeletan esperientzia artistiko baten sorkuntza eta martxan jartzeari ekingo diogu, irudiak jolas eta esplorazio gaitzat hartuta.

Esperientzia artistiko hori Teatro Paraiso Antzerkiak garatutako "LORATEGIAN" ikuskizunaren inguruan egingo da Modu horretan, kontenplazio artistikoa hasi aurretik, burutzen den bitartean, eta amaitu ondoren gertatzen dena jasotzen duen ekintza-segida marraztuko da.

Ekintza-oinarria sortuko dugu, eta ikastetxe bakoitzean irakasleek sortutakoarekin pertsonalizatuko da. Horrez gain, proposatu diren ekintzak burutzeko beharrezkoak diren material didaktikoak emango dizkizuegu.





## ELKARREKIN JOLASTUKO GARA? TOPAKETA

*Sormenezko ikusle bilakatzeko ekintzak*

---

Parte hartuko duten ikasgeletan hezitzaileek egiteko proposamena, programaren material pedagogikoak eta “LORATEGIAN” ikuskizunaren artistek egindakoa oinarri.

Opari sorpresa iritsi da gelara eta neska-mutilen jakingura pizten du: Zer da? Guretzako al da? Ireki al dezakegu?

Paketea ireki eta barruan irudi-ontzi bat aurkituko dugu. Irudiek lorategi bat iradokitzen dute eta hau ezagutzeko gogoia pizten zaigu. Ontzia mugitzen badugu zuhaitzen berdea, loreen koloreak... ikusteko aukera izango dugu.

Behatzen jarraitzen badugu bi lagun aurkituko ditugu. Oso gustuko dute antzerkia egitea beraien lorategi txikian. Egun batzuk barru eskolara etorriko dira beraien istorio txikia kontatzera: “LORATEGIAN”.

Bitartean neska-mutilek irudi ontziarekin jolasteko aukera izango dute, honi birak emanez aurpegi bakoitzean dauden paisaia desberdinak aurkituko dituzte lorategia alde batetik bestera mugituz. Gainera Arrate eta Andresen argazkiak behatuko dituzte bi pertsonaiak hobeto ezagutzeko.

Irudiei esker ikuskizunaren gaia eta hau egingo duten aktoreak hobeto ezagutuko ditugu “LORATEGIAN” ikustera joateko gogoia piztuz.





## LORATEGIAN

### *Antzerki- eta irudi-ikuskizuna*

---

"LORATEGIAN" antzezlanak Belgikako La Guimbarde konpainiarekin batera ekoiztu dugu eta Charlotte Fallon-ek zuzentzen du. 2005eko maiatzaren 19an estreinatu zen Charleroi-ko (Belgika) "KULTURA ETA LEHEN HAURTZAROA" nazioarteko jaialdian. Horrez geroztik, 1.000 emanaldi baino gehiago egin ditu eta herrialde ugari izan da (Belgika, Italia, Erresuma Batua, Errumania, India, Portugal, Singapur, Brasil, Txile, Uruguai, Argentina, Mexiko, Estatu Batuak, Kanada, Finlandia, Norvegia eta Kroazia). Gainera, honako sari nazionalak eta internazionalak jaso ditu:

**FETEN 2006.** Lehen haurtzarorako ikuskizun onenaren saria.

**Lleidako Azoka 2006.** Ikuskizun onenaren saria eta proposamen berritzaile onenaren saria.

**Hyuko Jaialdia (Belgika) 2006.** Bere edertasun poetikoa eta lehen haurtzarorako bere egokitasunagatik. Belgikako Kultura eta Hezkuntza Ministerioren saria.

**Antzerkiaren Nazioarteko Jaialdiaren "100, 1000, 1000000 Istorioak " Bucarest (Errumania) 2007.** Lehen haurtzarorako ikuskizun onenaren saria.

Proposamenaren orijinaltasunari eta kalitate artistikoari esker, antzezlanak nazioarteko zein nazioarteko hainbat sari jaso ditu.



*“Lorategian eseritako emakumea ametsetan dago. Gizon bat iritsiko da eta irudien munduan zehar egiteko bidai batera gonbidatu du. Elkarrekin, zuhaitzen artean, oihala topatuko dute, eta oihal hori orri zuri bilakatu da irudiak sortu eta eraldatzeko... jolasteko eta zirrarak irudikatzeke lekuan.*

*Adin samurrenetik hasita, haurrak irudien munduan sartuta daude, nahiz eta gehienetan modu pasiboan izan. Gure lorategian antzerkia, bideoa, itzalak eta marrazkiak nahasten dira haurrei jolaserako bizipen bisuala eta aktiboa proposatzeko.”*

Ikusle txikiek beren indar eta hauskortasunaren arteko kontrastearengatik harrিতuta uzten gaituzte. Hor egoteko duten gaitasunetik datorkie indarra, unean beti eskuragarri, jakiteko beti prest. Hauskortasuna, berriz, mundura zabaltzetik datorkie, zirrarei oztoporik ez jartzetik.





## IRUDI BILDUMAGILEA

### *Oihartzun artistikoak ikasgelan*

---

“LORATEGIAN” ikuskizunak seguru izugarrizko oihartzuna sortu duela neska-mutilengan eta baita irakasleengan ere. Hau egoera pribilegiatua da, ikasgelan sormena lantzea ahalbidetzen duelako irudien bidez lorategiaren inguruko gaia landuz.

Proposamenaren garapena:

#### **OBJEKTUAREN AURKEZPENA.**

Antzezpena eta gero, egunen batean neska-mutilek ikasgelara kartoizko kutxak ekarriko dituzte eskultura txiki bat egiteko. Jarraian, horren inguruan eserita, galderak egingo dizkiegu. Zer irudi gogorarazten digu? Zeren antza dauka?

Parte-hartzaile bakoitzak erantzun eta kutxa bat hartzen du. Horrela, ekarpen bakoitzarekin eskultura pixkanaka itxuraldatuko da.

#### **SORMENEZKO TRANSFORMAZIOA.**

Neska-mutil bakoitzak kutxa bat dauka, bere irudi-lorategia sortzeko gonbidapena, alegia.

Irudi berri honek neska-mutilei ontziarekin jolasteko grina piztuko die, birak emanez, mugituz eta besteen ondoan kokatuz dorre txikiak eratzeke.


#### **IRUDIAK EGIN.**

Kuboa irudi-bilatze eta -sorkuntza lana egiteko gonbidapen pertsonalizatuta bihurtzen da. Kutxaren aurpegi bakoitzak hainbat espresio-teknika esploratzeko aukera ematen du, garapen ebolutibo bakoitza kontuan hartuta:

Gustuko dugun animalia edo landare bat aukeratzeko irudiak bilatzea.

Lorategiko belarra irudikatzeko pintura teknika desberdinak lantzea.

Kolore eta ehundura desberdinak dituzten materialak erabiltzea loren leuntasuna eta koloreak adierazteko.



Lorategien, loren eta animalien margolanak aurkitzea eta zirrara sortzen digun bat aukeratzea.

Beste aukera batzuk aztertzea.

Collage bat sortzea irudien zatiekin, gometsekin, margoekin eta mutilaren edo neskaren argazkiarekin. “Ni eta lorategia” gaiaren gaineko azterketa.

Ikastetxeak lorategirik badu edo bertatik gertu bateren bat aurkitzen bada irteera txiki bat antolatu daiteke material desberdinak jasotzeko: hostoak, loreak, fruituak, harri txikiak... Ondoren lorategi bat osatuko dute jasotako guztiekin. Esperientzia hau kamerarekin grabatu daiteke gero eskolan proiektatzeko.

### **IRUDIEKIN JOLASEAN.**

Ontziaren eraldatze prozesua amaitzean edo prozesu horretan zehar joko desberdinak sustatu daitezke arrazoitutako sorkuntzetan oinarrituta.

Lorategiko belar guztiak pilatzea zelai berde horizontal handi bat sortzeko.

Dorre txikiak egitea loren ehundurekin eta koloreekin.

Aukeratutako animalia eta landareekin jolastea mugimenduaren eta soinuaren bidez bata bestearekin elkarrekin erlazionatuz.

Gelako neska-mutilen irudiekin lorategi-dorre handi bat eraikitzea.

### **JOKOAREN LUZAPENA.**

Prozesua amaitzean ikasle bakoitzak irudiz betetako lorategi aparta birsortuko du jolasten jarraitzeko balioko duena.

Lorategi berriak gelan utzi daitezke edo ikasle bakoitzak bere etxera eraman ditzake. Irudi-ontzia eskolan garatutako bizitza eta arte esperientziarekin zerikusia duen lotura batean bihurtzen da eta gainera esperientzia hau gurasoekin partekatu dezakete.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

AMURRIO  
UDALA



AMURRIO  
AYUNTAMIENTO



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OIONgo Udala



Ayuntamiento Iruña de Oca  
Iruña Okako Udala

Ayuntamiento  
de Labastida



Bastidako  
Udala



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala

AYUNTAMIENTO  
ALEGRIA-DULANTZI



ALEGRIA-DULANTZIKO  
UDALA